

Ander Izagirre
Kazetaria



Jose txo bidean berriz ere

Ibiltariak gaztainondoaren adarra heltzen zutela ikusteak tripako mina ematen zion Jose txo Mayorri. Uliako mendiko bideak egunero-egunero zaintzen eta garbitzen ari ziren zen donostiar hau, aldapa zailetan eskuz zizelkatuko hareharrizko harlauza txukun batzuk ere jartzen zituen, eta mendiko arbola bakoitzaren hazkundera arretaz zaintzen zuen.

Horregatik, bihurgune itxi horretan ibiltariak gaztainondoaren adar baxue- na heltzen zutela, eta adarra okertzen eta galtzen ari zela ikustean, beste lan bati ekin zion: bihurgune zabalago bat egin zuen aitzurraz, harlauzak jarri zituen, hartara ibiltariak gaztainondotik metro bat urrutirago pasa zitezen. Hainbat aste eman zituen lan horretan. «Lan handiak bai, baina birao bakar bat ere ez. Boluntario aritzen denak ezin du kexarik egin», esaten du Jose txok. Lanaren emaitza: gaztainondoaren adarra salbatu zuen, sendo hazten ari da orain.

Jose txo gelditu egon da bi urtez, osasun arazoak direla medio. 1986 eta 2012 artean, Uliako bideak garbitu eta zaindu zituen; hasieran astebururo; erretiratu zenetik, egunero. Hilaren lehenengoan salbu: «Egun horretan eskua jartzera joaten bainaiz»; alegia, banke- txean pentsioa kobratzera.

Tristurak bultzatu zuen lanera. Haurtzaroa eta gaztaroa Uliako pasatu zituen Jose txok: umetan, basoan behera eta gora jolasean; gaztetan, lagunekin sagardo botilak edaten eta zoko estaliren batean neska-lagunarekin ezkutuan musuka. Urte batzuk geroago, mendira itzuli eta bidezidor guztiak balduta zeudela ikusi zuen, sastrakek janda. «Hiltzeko moduko pena» sentitu omen zuen. Jendea goiko errepidetik bakarrik paseatzen zen orduan. Itsasora ematen duen mendi hegalean ezinezkoa zen urrats bakar bat ere ematea.

1986ko irailaren 26an erabaki bat hartu zuen: «Tresnarik gabe, esku hutsekin, sasiak kentzen hasi nintzen Barrakas baserria zegoen inguruan. Lehenengo goiz hartan pentsatu nuen ea noraino iristeko gai izango nintzen...».

Hurrengo 26 urteetan ez zuen atse- denik hartu eta Uliako kosta zeharka-

tzen duen ibilbide sare zoragarria garbitu eta osatu zuen. «Sasiak kentzen hasi eta halako batean itsasoa azaldu zitzaidan: itsasoa! Hunkitu egin nintzen. Ahaztu egin zitzaigun bide horietan labarren eta olatuen ikusmira zoragarriak zeudela. Itsasoa berreskuratu genuen», dio Jose txok plural eskuzabala erabiliz. Ibiltari mordoa dabil orain Pasaia eta Donostia lotzen duen bide- tik, eta gutxiak dakite Jose txori esker da- biltzala paraje horietan.


Aurkikuntza arkeologikoak ere egin zituen. Kutrailako iturritik itsasorantz jaisten den hegian, sasiak kentzen hasi eta harlauzak aurkitu zituen. Beherago jo eta harlauza gehiago: XIX. mendeko galtzada bat zen, harrobi txiki batetik hareharria ateratzeko egin zutena. Donostiako hainbat eraikinetako harria hemengoa da, Groseko San Fran- zisko elizakoa adibidez.

Norbaitek plaka bat jarri zuen galtza- daren ondoko harkaitz batean: «Aveni-

da Jose txo». Eta horixe izan zen Jose txo gehien hunkitu zuen omenaldia: Uliako ibiltari anonimoen esker ona. Etorri ziren, gero, Donostiako Udalak eman zion merituaren domina, eta oraintxe Cristina Enea Fundazioak antolatu duen argazki eta bideo erakusketa txi- kia, Uliako Interpretazio Zentroan ekai- na arte egongo dena.

Apirilaren 13an zabaldu zuten erakus- keta eta Jose txo bertan egon zen, jende- aren galderak erantzuten eta esker ona jasotzen. Orduan kontatu zuen azken bi urteak gelditu pasa behar izan dituela, baina orain, 81 urterekin, bideetara bueltatzeko prest dagoela. Lehenengo asmoa ere buruan dauka: balduta dago- en iturri bat garbitu eta berpiztea. Nor- baitek eskerrak ematen zizkionean, Ma- chadoren modura erantzuten zien Jose txok: «Ez, ez, eskerrik asko zuei Uliako ibiltzeagatik; ibiltaririk gabe ez baitago biderik». •

www.anderiza.com



1986 eta 2012 artean, Uliako bideak garbitu eta zaindu zituen Jose txo Mayorrek.

IZAGIRRE

osasuna / hiriren lo(r)aldia / komunikazioa

3 BEGIRADA: